



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 10a

65. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Kultura-plan Estrategikoa prestatzeko egindako jarduketei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren etorkizuneko egoitzari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Erronkari Ibarra dinamizatu, egituratu eta bertan aberastasuna sortzeko aurreikusi dituen proiektuei eta ekimenei buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Luzaideko herritarrek elektrizitate-hornidurarekin dituzten arazoei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, itxarote-zerrendetan egonik Bermeei buruzko Legearen urraketa jasaten ari diren pertsonen esku-bideak bermatzeko Osasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Izarbeibarrerako bigarren hezkuntzako institutu bat Garesen eraikitzeko aukerari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, N-121-A errepidean garatu beharreko jarduketa-programari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Errede Bardeako Batzorde Aholkuemaileari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Belateko eta Almandozko zundaketa geoteknikoen proiektuaren egoerari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, antzemandako beharrianak oinarri hartuta hezkuntza instalazioetan jarduteko egutegiari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, espezialisten kontsultetan arreta jaso dezaten pazienteak beste merindade batzuetatik Iruñera garraiatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, hizkuntza ez-ofizialen profila duten maisu-maistren eta irakasleen deialdia ahalbidetzeko murriztuko diren espezialitateei eta hizkuntza-eskakizunei buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Braille sisteman argitaratutako funtsen gehikuntzari dagokionez Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin beharreko jarduketei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Lodosako BHIan D ereduaren ez eskaintzeko dauden arrazoiei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (11. or.).
- Galdera, lan-eskaintza publikoaren egiteko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jarraitu dituen irizpideei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, zorpetze osoa handitzeari buruzkoa. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak parte hartu edo laguntzen dituen Saharako errefuxiatuentzako laguntza-programei buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, jakitekoa zein irizpide erabiliko dituen Nafarroako Gobernuak, Nafarroako arte eta monumentu izaerako higiezinak zaharberritzeko eta birgaitzeko obrak egite aldera. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, LABek etendako elkarrizketa soziala berriz osatzeko neurriei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzkoa. Galdera idatzi bihurtzea (14. or.).
- Galdera, Panaman eta beste zerga paradisu batzuetan zergadun nafarrak ustez egoteari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Mahaiaren erabakia, 2016ko maiatzaren 9koa, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Gobernuaren erabakia nola bidali foru parlamentariari (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak Kultura-plan Estrategikoa prestatzeko egindako jarduketei buruzkoa.*CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Kultura-plan Estrategikoa prestatzeko egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Batzordean ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 programakordioan, Kulturari buruzko atalean, jasotzen da kultura-plan estrategikoa bat eginen dela, detektatutako beharrei eta errealitateari buruzko diagnostiko batetik abiatuta.

Zer jarduketa bultzatu ditu Nafarroako Gobernuak konpromiso hori garatzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren etorkizuneko egoitzari buruzkoa.*CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren etorkizuneko egoitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Bartzordean ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa Nafarroako kulturaren adierazpen eta aurrerapauso bat dugu, eta

balio handi-handiko baliabide kulturala da, Nafarroako Gobernuaren aldetik dagokion arreta eta aitortpena merezi dituena.

Erabaki al du Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak zein izanen den Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren egoitza?

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Nafarroako Gobernuak Erronkari Ibarra dinamizatu, egituratu eta bertan aberastasuna sortzeko aurreikusi dituen proiektuei eta ekimenei buruzkoa.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Erronkari Ibarra dinamizatu, egituratu eta bertan aberastasuna sortzeko aurreikusi dituen proiektuei eta ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Cristina Altuna Ochotorena andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Landa garapen iraunkorraren sustapenak behar duen bultzada etengabea kontuan hartuta, kezkarriak dira Erronkaritik iritsi diren berriak, Aste Zuriaren programazioa dela-eta. Eztabaida eta zatiketa nagusitu dira une zaila igarotzen ari den eskualde batean, eta inoiz baino beharrezko-agoa denean ekimen ekonomikoak eta sozialak abian jartzea.

Horiek horrela, jakin nahi dugu:

– Zer ekimen eta proiektu abiarazi gogo ditu Nafarroako Gobernuak eskualdea dinamizatu, egituratu eta bertan aberastasuna sortzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Galdera, Luzaideko herritarrek elektrizitate-hornidurarekin dituzten arazoari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Luzaideko herritarrek elektrizitate-hornidurarekin dituzten arazoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Luzaideko herritarrek elektrizitate-hornidurarekin dituzten arazoak direla-eta, zer jarduketa egingen du Nafarroako Gobernuak egoera konpontzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, itzarote-zerrendetan egonik Bermeei buruzko Legearen urraketa jasaten ari diren pertsonen eskubideak bermatzeko Osasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, itzarote-zerrendetan egonik Bermeei buruzko Legearen urraketa jasaten ari diren pertsonen eskubideak bermatzeko Osasun Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

– Zer egingen du Osasun Departamentuak itzarote zerrendetan egonik Bermeei buruzko Legearen urraketa jasaten ari diren pertsonen eskubideak bermatzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Izarbeibarrerako bigarren hezkuntzako institutu bat Garesen eraikitzeke aukerari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Izarbeibarrerako bigarren hezkuntzako institutu bat Garesen eraikitzeke aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentua aztertzen ari al da Izarbeibarrerako bigarren hezkuntzako institutu bat Garesen eraikitzeke aukera?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, N-121-A errepidean garatu beharreko jarduketa-programari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, N-121-A errepidean garatu beharreko jarduketa-programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

2015eko urrian Parlamentu honek gure taldeak aurkeztutako mozio bat, N-121-A errepideari buruzkoa, onetsi zuen.

Aipatu mozioan Nafarroako Gobernuak premia-tzen zen Parlamentu honetan lehenbailehen aurkez zezan, ukitutako lurralde-eragileekin partehartze prozesuak izan ondoren, N-121-A errepidean mota guztietako hobekuntzak egiteko programa bat, legegintzaldi honetarako egutegi eta guzti, bai eta hurrengo urteotan egin beharreko inbertsioen gutxi gorabeherako balorazio bat ere.

Aipatu mozioa onetsi zenetik sei hilabete baino gehiago igarota, lehen aipatutako programa zein egoeratan dagoen jakin nahi da, eta horregatik eskatzen da Osoko Bilkurarako onartu eta izapide-tu dadin honako galdera hau, Nafarroako Gobernuak gai horri buruzko azalpenak eman ditzan ahoz, honako hauei dagokienez:

- Aurretik aipatu den jarduketa-programaren idazketaren egoera, eta hura bukatzeko aurreikuspenak.

- Aztertzen ari diren neurri edo jarduketan berri ematea.
- Parte-hartze publikoko prozesua abiarazteko aurreikuspenak.
- Nafarroako Parlamentuan hura aurkezteko aurreikuspena.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Errege Bardeako Batzorde Aholkuemaileari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Bardeako Batzorde Aholkuemaileari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-terko José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Errege Bardeako Batzorde Aholkuemailea, apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legearen bidez sortu zenetik, behin bakarrik batzartu da. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aholkularitza batzorde hori berrabiaraztea?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Belateko eta Almandozko zundaketa geoteknikoen proiektuaren egoerari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Belateko eta Almandozko zundaketa geoteknikoen proiektuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

2015eko urrian Parlamentu honek gure taldeak aurkeztutako mozio bat, N-121-A errepideari buruzkoa, onetsi zuen.

Aipatu mozioan Nafarroako Gobernua premia-tzen zen egin beharreko zundaketa geoteknikoak al bait azkarren abiaraz zitzan, 2016an, Belateko eta Almandozko tunelei behin betiko konponbidea emateko proiektu teknikoak eskatzeko behar diren aurretiazko azterlanak burutze aldera.

Gai hori dela-eta, aipatu kanpaina zertan dagoen jakin nahi da, eta horregatik eskatzen da Osoko Bilkurarako onartu eta izapidetu dadin honako galdera hau, Nafarroako Gobernuak gai horri buruzko azalpenak eman ditzan ahoz, honako hauei dagokienez:

- Lehenengo eta behin, ea hasi ote den idazten zundaketak lizitzatzeko eta dagokion ingurumen-baimena eskatzeko behar den proiektu teknikoa, eta, hasi bada, zertan dagoen.

- Aipatu proiektua bukatu bada, ea hasi ote den ingurumen-baimenaren tramitazioa, eta hura lortzeko aurreikuspenak den epea.

- Azkenik, zein aurreikuspen duten zundaketak abiarazteari begira.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, antzemandako beharrianak oinarri hartuta hezkuntza instalazioetan jarduteko egutegiari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, antzemandako beharrianak oinarri hartuta hezkuntza instalazioetan jarduteko egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak ba ote du egutegi bat, hezkuntza instalazioetan jarduteko, antzemandako beharrianak oinarri hartuta?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, espezialisten kontsultetan arreta jaso dezaten pazienteak beste merindade batzuetatik Iruñera garraiatzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, espezialisten kontsultetan arreta jaso dezaten pazienteak beste merindade batzuetatik Iruñera garraiatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentua neurriren bat ikertzen ari al pazienteak beste merindade batzuetatik Iruñera eramatea errazte aldera, espezialisten kontsultetan arreta jaso dezaten?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, hizkuntza ez-ofizialen profila duten maisu-maistren eta irakasleen deialdia ahalbidetzeko murriztuko diren espezialitateei eta hizkuntza-eskakizunei buruzkoa.

MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, hizkuntza ez-ofizialen profila duten maisu-maistren eta irakasleen deialdia ahalbidetzeko murriztuko

diren espezialitateei eta hizkuntza-eskakizunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendoza jaunak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin izan da Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendozak Madrilen bilera egin duela Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko ministro Íñigo Méndez de Vigorekin, eta horri eskatu diola sartzeko erregelamendua aldatzea,

hizkuntza ez-ofizialen profila duten maisu-maistren eta irakasleen deialdia ahalbidetzeko, Ingeleseztatik Programaren hedapenak eragin dituen ingelesdun irakasleen beharrianak estaltze aldera. Horren harira, parlamentari honek honako galdera hau egiten du:

Zein espezialitatetatik eta hizkuntza-eskakizunetatik murriztu nahi ditu lanpostuak Departamentuak, helburu horretarako?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

Galdera, Braille sisteman argitaratutako funtsen gehikuntzari dagokionez Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin beharreko jarduketei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Braille sisteman argitaratutako funtsen gehikuntzari dagokionez Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egin beharreko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Batzordean ahoz erantzun dakion.

2016ko maiatzaren 4an Kultura Zuzendaritza Nagusiko Liburutegi Zerbitzuko zuzendariak agerraldia egin zuen, unera arte egindako lana eta jarraitu beharreko ildoak azaltze aldera. Saio horretan, Nafarroako Alderdi Sozialista-PSOEn kultura, kirol eta gazteria eledunak bere esku-hartzearen barnean galdera bat egin zuen Nafarroako Gobernuaren 2015-2019rako programa-akordioan, Kulturari buruzko atalean, hain zuzen, "braille sisteman argitaratutako funtsen gehikuntza"ri buruz adierazitakoaren gainean.

Saio horretan galderari erantzun ez zitzaienez, honako galdera hau aurkezten da Batzordean ahoz erantzun dadin:

Zein dira Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak egiten dituen jarduketak, braille sisteman (itsuentzako ukimen bidezko irakurketa- eta idazketa-sistemak) argitaratutako funtsen gehikuntzari dagokionez?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Lodosako BHIan D eredia ez eskaintzeko dauden arrazoiei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Lodosako BHIan D eredia ez eskaintzeko dauden arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

2016-2017 ikasturtean Lodosako ikastetxe publikoan D eredia eskainiko dela iragarri da. Halaber, kontuan hartu behar da eremu horretan (Lodosan eta Vianan, hain zuzen) bi ikastola daudela, hainbat urtetatik hona eredu horren eskaria barne hartu dutenak.

Zergatik ez da eskaintzen D eredia Lodosako BHIan, DBHko lehen mailarako, hain zuzen, 2016-2017 ikasturtean? Horrela, ez lirateke ikaslerik behartuko Nafarroako beste herri batzuetara, hogeita hamar kilometrotik gorako distantzian daudenetara, joatera, eredu hori aukeratu ahal izateko.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, lan-eskaintza publikoa egiteko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jarraitu dituen irizpideei buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, lan-eskaintza publikoa egiteko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jarraitu dituen irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak 2016ko maiatzaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den asteko mahai sektorialean O-NOZek sindikatuarekin negoziatzeko egin duen proposamenaren berri izan genuen. Lan-eskaintza publiko hori "laguntza izaera" handikotzat jo dute.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Zein irizpideri jarraitu dio O-NOZek lanpostuei buruzko proposamen hori egiteko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez

Galdera, zorpetze osoa handitzeari buruzkoa.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, zorpetze osoa handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko maiatzaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2016ko lehenengo hiruhilekoan egindako zorpetze-eragiketei buruzko azken informazioaren arabera, zorpetze osoa 2.956.070.000 eurokoa izan da. 2015eko laugarren hiruhilekoko datua, berriz, 2.823.570.000 eurokoa zen.

Zein izan dira zorpetze osoa handitzearen arrazoiak?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroako Gobernuak parte hartu edo laguntzen dituen Saharako errefuxiatuentzako laguntza-programei buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak parte hartu edo laguntzen dituen Saharako errefuxiatuentzako laguntza-programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin José Miguel Nuin Moreno jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak maiatzaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Mendebaldeko Saharako herriak Marokok haren lurralde zati handia okupatu izana jasan du azken lau hamarkadetan. NBEk determinazio liberako eskubidea aitortu dio Mendebaldeko Saharako herriari, deskolonizazio-prozesu baten esparruan.

Milaka saharar errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira, haien lurraldera itzultzea ahalbidetzen dien bidezko irtenbide demokratiko baten zain.

Berrogei urtetik gorako okupazio horretan Nafarroako gizarteak eta erakundeek laguntza eta elkartasuna helarazi dizkiote etengabe Mendebaldeko Saharako herriari.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

– Mendebaldeko Saharako errefuxiatuentzako zein laguntza-programatan parte hartu edo laguntzen du Nafarroako Gobernuak? Zein balorazio egiten du Gobernuak programa horien funtzionamenduari buruz? Zein da etorkizunerako aurreikuspena?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, jakitekoa zein irizpide erabiliko dituen Nafarroako Gobernuak, Nafarroako arte eta monumentu izaerako higiezinak zaharberritzeko eta birgaitzeko obrak egite aldera.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zein irizpide erabiliko dituen Nafarroako Gobernuak, Nafarroako arte eta monumentu izaerako higiezinak zaharberritzeko eta birgaitzeko obrak egite aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du zein irizpide erabiliko dituen Nafarroako Gobernuak, Nafarroako arte eta monumentu izaerako higiezinak zaharberritzeko eta birgaitzeko obrak egite aldera.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, LABek etendako elkarrizketa soziala berriz osatzeko neurriei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, LABek etendako elkarrizketa soziala berriz osatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendu ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, ahoz erantzun dakion.

Joan den apirilaren 28an LAB sindikatuko kide batzuk baimenik gabe sartu ziren CEN-Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren egoitzan. Ohiko jarduera bortxatu zuten, eta, gainera, pankarta bat zabaldu zuten. Beraz, poliziaren esku-hartzea behar izan zen.

Behin eta berriz errepikatzen diren ekintza horiek ez diote laguntzen herritar guztiei on egiten dieten erabakiak lortzeko behar den elkarrizketari.

Hori dela eta, hau jakin nahi dut:

– Zer egingen du Nafarroako Gobernuak, LABek gainerako erakundeei –eta, bereziki, Nafarroako patronalari– inolako errespeturik ez gordezteagatik hautsi den elkarrizketa soziala berreskuratzeko?

– Nafarroako Gobernuak jarraituko al du defendatzen itun sozialeko eredu bat, zeinetan mahai batean eseriko baitira desadostasunak izanda ere errespetua gordetzen dutenak eta errespetua gorde gabe desadostasunak azaltzen dituztenak?

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzkoa.

GALDERA IDATZI BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ana San Martín Aniz andreak aurkezturiko idazkia ikusita, non eskatzen baitu galdera idatzi bihurtzea Osoko Bilkuran erantzuteko aurkeztu zuen ahozko galdera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela galdera idatzi bihurtu dela emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzko ahozko galdera, zeina 2016ko martxoaren 15eko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Panaman eta beste zerga paradisu batzuetan zergadun nafarrak ustez egoteari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Jokin Castiella Imaz jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Panaman eta beste zerga paradisu batzuetan zergadun nafarrak

ustez egoteari buruzkoa zen, eta 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren erabakia, 2016ko maiatzaren 9koa, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Gobernuaren erabakiak nola bidali foru parlamentariari.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Parlamentuko Erregelamenduaren 14.3 artikuluan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 32. artikuluan xedatutakoaren babesean, foru parlamentariak eskatu izan dute Nafarroako Gobernuak bere bilkuretan hartutako erabakiak bidaltzeko.

Foru parlamentariari erabakiak bidaltzeko orduan jarraibide batzuk ezartzeko asmoz, Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu zuen 2016ko martxoaren 2ko bilkuran.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, jarraibide horien berri izan zuen, eta erabaki zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea bere erabaki guztiak Legebiltzar honetako Lehendakaritzari bidaltzeko, horrek ondoren foru parlamentariari helaraz diezazkien.

Erabaki horiek betetzeko, Parlamentuak espediente mota berri bat, "Nafarroako Gobernuaren erabakiak: GOB" izenekoa, sortu du. Erabakiok Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoren bidez bidaliko dira. Erabakien parlamentu-izapideei dagokienez, "Informazio eskariak: PEI" izeneko dokumentuen izapideen antzekoak izanen dira, eta isilpeko erabakitzat joko dira, dokumentuetan ager daitezkeen datu pertsonalak babeste aldera.

Hori horrela, Erregelamenduaren 37.1.1 artikularekin bat, hona ERABAKIA:

1. 2016ko maiatzaren 11tik aurrera, Nafarroako Gobernuaren erabakiak Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariaren eta Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Telematikoren bidez bidaltzea foru parlamentariari.

2. Erabakiak erregistratzeko jarraibideak onesteak, erabaki honen eranskinean adierazi bezala.

3. Legebiltzarreko zerbitzuei agintzea hartu beharreko neurriak har ditzaten, aurreko idatz-tzietan xedatutakoa bete dadin.

4. Foru parlamentariari ohartaraztea datu pertsonalak dituzten erabakiak bidaltzerakoan bete behar dela Nafarroako Parlamentuaren kontrol eginkizuna, Nafarroako Gobernuaren erabaki guztiak dagokienez, Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 32. artikuluan babesean. Aldi berean, foru parlamentariak datu horiekin ondoren egin dezaketan tratamenduak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritako aginduei heldu beharko die.

5. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Eranskina

“Nafarroako Gobernuaren erabakiak: GOB” izeneko espedienteak erregistratzeko jarraibideak

Erregistro Telematikoan datuak sartzea eta datuak igortzea:

Dokumentu mota: Erabakia

Espediente berria – Espediente mota: Nafarroako Gobernuaren erabakiak

Deskribapena: Gobernu Kontseiluak xxx(e)(a)n egindako bilkuran hartutako erabakiak

Erregistro telematikoan idatzoharra egitea:

Erregistroko arduradunak, “Sarrera Erregistroan idatzoharra” egiterakoan, “konfidentzialtasuna” erlaintza aktibatu beharko du.

Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko hiru kideak hautatzeko hautagaitzak aurkezteko

epea luzatzea **2016ko maiatzaren 26ko 12:00ak arte.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

